

URA BURTSAN SARTURIK, BAKAR BATZUEK **ABERASTASUN** **ITURRI DAUZKATE BESTEONTZAT** **NEKEZIA DIREN IDORTE GARAIK**

Uda honetan azkar sentitzen gabiltza ate-joka ditugula klima larrialdia eta bere baitan dauzkan idorteak. Inoiz baino gorriagoak ditugu gure bazter berdeak eta sufritzen dabilta landare zein kabalak –eta horien ondoan diren laborariak–. Eskasiari aurre egiteko, uraren finantziarioa daukate soluziotzat hainbatek, diotenez erabilpen neurtua eta zentzuduna behartuko duelako. Uste baino garatuagoa da logika hori eta 1970eko hamarkadaz geroztik emandako aldaketei begira jarri gara. Tartean, 2020ko abenduaren 7an ura Wall Streeten sartu izanari.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Iazko apirilean ondokoa zioen Nicolas Mesly agroekonomialariak, *Le Devoir* egunkari quebectarrean: “Ikusteke dago zein heinetaraino eraginaren duten finantza arloko eragileek –eta beraz, espekulazioak– [uraren prezioan]. Ezezagun handia dugu hori eta urte bat ala bi itxoin beharko dugu erantzuna argitzeko”. Urte bat lehenago, 2020ko abenduaren 7an, ura Chicagoko eta Nasdaq izeneko burtsetan sartu zuten eta ia bi urte pasa direla, erantzuna badugu: espekulatzeko ondasun oparoa bihurtu da ura. Ondoko bilakaera dugu horren erakusle: 2020an 496 dolar balio zuen akre-oinak –1,2 milioi litro–, 2021ean 728 dolar eta aurtengo udan 1.144 dolar. Hori horrela, “urre beltzaren” –petrolio– gainbehera

hortxetan dugula, badirudi “urre urdina” ari zaiola lekua hartzen.

Honek esplikazioa dauka: “Zeozer burtsara sartuz gero, berezko balioak ez du gehiago esanahirik, bere balio monetarioak du inporta, hots, zenbat etekin ondorioztatu dezakeen”. Uda honetan gogorki sentitu izan dugun idorteak azaltzen du prezioen igoera, hain zuzen, zeozer bakana bihurtuz gero bere balioa emendatzen delako merkatuan.

Ondokoa dio Claude Vaillancourt ekonomialariak *L'eau, ressource vitale ou gain de capital?* (“Ura, ezinbesteko baliabide ala kapitala metatzeko bide?”) artikuluan: “Ura eskastuz doalako daukate interesa espekulatzailiek. Arraro kontsideratu dezakegu hori, berez planetak ur kantitate bera duelako beti,

baina kutsadurak, berotze klimatikoak eta emendatuz doan eskaerak dakarte gutxitzea. Hori batez ere idortea pairatzen duen eta Ipar Ameriketako labore hornitzaile nagusia den Kalifornian”. Gehitu horri munduko biztanleriaren bilakaera: 2050. urtean 10 bilioi izanen gara eta NBEren arabera, hemendik hiru urtera bi herenek dute “estres hidraulikoa” pairatuko (eskaera ur erreserbak baino handiagoa izatea). Aitzin-gustu bat ukan dugu uda honetan, ur eskasiak dakarrena irudikatzeko aukera jasoz...

Uraren gaineko indizean oinarrituriko *futures contract* edo gerorako hitzarmenak sartu zituzten, beraz, Wall Streeten. 2020an ginen, Kalifornian idorte eta sute ikaragarriak jasan zituzten urtean, eta bertako 1,7 milioi hektarea oihan

eraman zituen suak. Nozio finantzario hori ahal bezain sinpleki esplikatzen... indize honek ez dio uraren prezioari begiratzeko, baizik eta prezioak ukan dezakeen bilakaeraren gainean dabil-tza espekulatzen. Hots, hitzarmenak salerosten dituztenek ez dute ordainez uraren banaketa fisikoa lortuko, prezioen bilakaera -emendioak edo beherapenak- pariatzen dabilta, horri esker dirua irabazteko asmoz. Espekulazioan gaude bete-betean: urik ez dute nahi, sosa dute desio, eta berdin zaie beraien jarduerak beste milioika herritarrei egarria eragin behar badiete. Ofizialki eta oinarrian, uraren prezioa finkatzeko bideak dira hitzarmenak - eta beraz nekazari, udal zein enpresentzat segurtasuna bermatzeko-, aurretik finkaturiko prezioen ez dutelako eragiten ahal gerora etorriko diren gertaera aurreikusitakoak.

Baina espekulatzeko helburutzat daukaten inbestitzaileen ukaldiek prezioen

**2020an 496 dolar balio
zuen akre-oinak
-1,2 milioi litro urek-,
2021ean 728 dolar eta
aurtengo udan
1.144 dolar**

bilakaera jasanezina eragin dezakete: "Ez gara ausartuko imajinatzen zer eragingo lukeen izu-mugimendu edo burtsa-euforia batek ura bezalako bizi-baliabide batean; haren prezioak us-tekabean erreakzioa lezake, hil edo

biziko ondasuna dela kontuan hartu gabe, eta izan ditzakeen ondorioei arretarik bideratu gabe", irakur dezakegu Antoine Costaren *H2O fait son entrée en bourse* (H2O burtsan daukagu") artikuluan. Merkatu errealean baino dirutza askoz gehiago trukatzeko da burtsan, merkatu errealeko errealitatea "lanbro espekulatuak" estaltzeraino -Nicolas Bouleau-k *Le mensonge de la finance* ("Finantzaren gezurra") liburuan plaza-raturiko nozioa dugu hau- eta bideraturiko prezioak errealitateari egokituri-koak ez izateraino.

Ura burtsatik ateratzeko asmoz, Futur of Water Act testua proposatu zuen aurtengo martxoan Elizabeth Warren senatariak AEBetako Senatuan. Dioenez, uraren gainean espekulatzeko eka-rriko luke Kaliforniako etxalde txikien desagerpena, eta hori bakar batzuen mesedetan -tendentzia jadanik horrela-koa dute estatu horretan: 2017-2018 urteetan mila etxalde dira desagertu-.

DUELA 30 URTE HASITAKO PROZESUA

Nahiz eta ura burtsan sartu izana aurrekari esanguratsua izan, 1990eko hamarkadan hasi zen lehengai horren merkantilizazioa. 1970eko hamarkadan jada batzuk hori zuten helburutzat eta konbentzitzeko lan ideologiko handia eginik, lortu dute gaur egungo uraren finantziarioa.

PRIBATIZAZIOA, DUELA 30 URTE HASITAKO PROZESU KALTEGARRIA

Uraren finantziazioarekin giza eskubi-deak zalantzan jarriak dira, tartean, Nazio Batuen Erakundeak 2010eko uztailaren 28an aitorturikoa: ur edangarria eta eskuragarria guztiontzat. Hamar urte berantago, ura burtsara sartu berritan, kezkatu agertu da NBen uraren eskubi-dearen arduradun Pedro Arrojo-Agudo: "Berez, ura guztiona da eta ondasun publikoa da. Lotura estua du bizitza guzti-ekin eta bizirauteko bitarteko guzti-ekin; osasun publikorako funtsezko elementua da. (...) Oso kezkatuta nago orain ura tratatzen delako urrea, petrolioia eta beste lehengai batzuk bezala, Wall Streeteko merkatuan negoziatuz".

Baina "eskubide eskuragarri" izandakoa "merkantzia" daukate bakar -baina boteretsu- batzuek: "Ez da ura bizia delako, ez duela preziorik. Uraren gaineko iraultza finantzarioaren aroan sartuak gara", dio Willen Buitter Citigroup-en egondako ekonomilariak; "urak, zerutik erortzen denez kitorik egon beharko lukeela diotenei erantzuten diet diamanteak ere zerutik erortzen diren arren, ez direla kitorik", dio berriz Deane Dray RBC Capital Markets-eko zuzendariak. Adierazpen horiek *Main basse sur l'eau* dokumental mamitsuan entzungai ditugu.

2020an ura burtsara sartu izana aurrekari esanguratsua izan arren, uraren

—

"Ura zerutik erortzen denez kitorik egon beharko lukeela diotenei erantzuten diet diamanteak ere zerutik erortzen diren arren, ez direla kitorik"

Deane Dray

gaineko espekulazioa ez da gauza berria. Erresuma Batuak eta Australiak kasuak aipatzen dira dokumentalean. 1989ko azaroaren 28an pribatizatu zuen ura Margaret Thatcher lehen ministro ohiak, ura jasotzeko bermea iraganeko kontu bihurtuz.

Australian, kuota sistema planteatu zuten 1980ko hamarkadan, bakoitzari -udalei, baserriei eta industriako eragilei- ur-eskubideak banatuz, beharren arabera, baita erreserben eta aurreikuspen meteorologikoen arabera ere. Watter Act erabakiarekin, ur-eskubideak salerosteko merkatua abiatu zuten 2007an, espekulaziorako atea irekiz. Merkatu horretan handiek bakarrik biziraun dezakete. Eguraldia alde baldin badute -ulertu euriteak baldin badira- biziraun dezakete laborariak, baina azken urteetako idorteen testuinguruan, ezin dezakete espekulatzaleek finkaturiko prezio altuei eutsi. Finantza mundukoak aberasten dabilzan bitartean, Australiak, Kaliforniak eta Erresuma-Batuko etxaldeak desagertuz doaz, belaunaldi belaunaldi pasatako lan tresna saltzera behartuz ehunka laborari.

Txileko errealitatea ez du jorratzen dokumentalak, baina han ere pribatizatu dute ura, Augusto Pinochetek diktaduraz geroztik, eta hor ere nabarmen gelditzen ari da txiroenentzat ez dela eskuragarri eta aberatsak aberasteko ondasun dutela ura -jarduera estraktibistak eta monokultura industrialek dute ur gehiena jasotzen, 350.000 txiletar ur eskasian direlarik, Greenpeace arabera-.

1970eko hamarkadan jada zebiltzan batzuk uraren merkantilizazioa



IDORTE GARIAK ERREPIKATUZ AEBetako selaurua den Kaliforniak idorte bortitzei aurre egin behar die aurten ere. Bertan ekoiztua da AEBetako fruitu eta barazkien erdia. Aurreikusten da 110.000 langilek dutela lana galduko, idortearen eraginez. Argazkian Oroville lakua.



LABORARIAK BURTSAREN MENPE

Australian gertatzen dena esanguratsua da: burtsak finkatzen du uraren prezioa eta idorte garaietan prezioek ikaragarri gora eginik, laborari askok ezin dute ezinbesteko lehengai hori erosi. Haien etxaldea saltzera behartuak dira.

amesten, baina biztanleria eta mentalitateak ez zirenez prest, igurikatu behar izan zutela azaltzen dute dokumentalean. 1970eko eta 1980ko hamarkadetan konbentzitzeko "lan ideologiko" handia egin zuten, eta lortu zuten 1992ko NBERen ura eta ingurumenari buruzko nazioarteko konferentzian ura "ondasun ekonomiko" izendatzen. 2000. urtean kokatzen du uraren finantziazioaren hastapena Riccardo Petrella ekonomialari eta ur eskubidearen defendatzaile ezagunak –berak idatzitakoa da 1997ko Uraren Manifestua–: Water Fund urean be-

1970eko eta 1980ko hamarkadetan, konbentzitzeko lan ideologiko handia eginik, lortu zuten 1992an NBERen ura "ondasun ekonomiko" izendatzea

rezituriko lehen inbertsio-funtsaren sortze urtea, uraren sektoreko enpresetan kapitala inbertitzeko bidea ireki zuena. Geroztik biderkatu egin dira, eta gaur egun uraren banaketa eta garbitzearen zati nagusi bat enpresa pribatuen esku da herri anitzetan.

Uraren finantziazioa garatuz doa, errepikatuz doazen idorte garaien gisara eta ez da kasualitatea. Uraren kudeaketa merkatuaren esku uztean daukate soluzioa. Soluzio arriskutsua: lehorteari so egin eta aberasteko aukera ikusten dutelako burtsako errabiatuek. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

www.zinkunegioptika.com

